# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

### 5095

*AGINDUA, 2015eko azaroaren 20koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena. Honen bidez, «Administrazio Kudeaketa eta Kanpoko Akzioa» jakintza-arloko I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarri-mailetako lanpostuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeak, betetzeko lehiaketarako deialdia eta berariazko oinarriak onartzen dira.*

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2015eko uztailaren 9ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketarako oinarri orokorrak onartu ziren.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da «Administrazio Kudeaketa eta Kanpoko Akzioa» jakintza-arloko I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarri-mailetako lanpostuen deialdirako berariazko oinarriak deitzea eta argitaratzea, horietan zehaztuta lanpostu bakoitzaren berezitasunak.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 46. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioetan Funtzionarioentzako Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua (190/2004 Dekretuak onartua) aintzat hartuta, lege horren 6.1.j) artikuluak esleitzen didan eskumenaz baliatuz eta organo eskudunek aginduzko txostenak eman ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– II. eranskinean azaltzen diren lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa deitzea.

Bigarrena.– Lehiaketa horretarako berariazko oinarriak onartzea (I. eranskinean daude).

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen kontra, berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera dago, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari helarazita, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioaren aurkako auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 20a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

# I. ERANSKINA

«Administrazio Kudeaketa eta Kanpoko Akzioa» jakintza-arloko I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarri-mailetako lanpostuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeak, betetzeko lehiaketan bete beharreko berariazko oinarriak.

1.– Xedea.

Hauxe da oinarrion xedea: «Administrazio Kudeaketa eta Kanpoko Akzioa» jakintza-arloko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako lanpostuak, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarri-mailetakoak, lehiaketa bidez betetzeko balorazio-batzordea, eskabidea, proba-mota eta lanpostuak zehaztea (II. eranskinean datoz zehazturik lanpostu horiek).

2.– Eskabideak aurkeztea eta onartzea.

2.1.– Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko, 15 egun balioduneko epea dago, berariazko oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Parte hartu nahi dutenek intranet bidez egin beharko dute eskabidea, lehiaketen atalean dagoen eredua betez. Eskabidea jaso izanaren agiri bat emango zaie eskabideak era horretan aurkezten dituztenei.

2.2.– Salbuespenez, deialdi honetako IV. eranskin modura datorren eredua aurkezteko aukera egongo da. Halakoetan, Funtzio Publikoko zuzendariari egin beharko zaio eskabidea. Lehiatzailea zerbitzu berezietan baldin badago edo seme-alabak zaintzeko lan-utzialdian baldin badago, lanpostua non duen gordeta, lanpostu horri dagokion sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren erregistroan aurkeztu beharko du eskabidea; borondatezko lan-uztaldian badago, berriz, azken lanpostua izan duen sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren erregistroan aurkeztu beharko du.

2.3.– Eskabide baldintzadunak. Baliteke, lehiaketa honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten bi pertsonak, familia-elkarbizitza dutela-eta, herri berean eta hurbileko herrietan lortu nahi izatea lanpostua, lehiaketa honetan. Halakoetan, lanpostua biek ala biek lortu beharra adieraz dezakete eskabideetan, baldintza modura; hala, baldintza hori betetzen ez bada, indarrik gabe geratuko dira dena delako herriko lanpostuetarako egindako eskabide biak.

2.4.– Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, ez da aldaketarik onartuko eskabideetan. Alabaina, lehiatzaileek, hala nahi badute, lehiaketan atzera egiteko eta ez parte hartzeko aukera ere izango dute, esleipenen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak egiteko epearen barruan.

2.5.– Lanerako baldintzak betez gero, iragarritako lanpostu hutsetatik nahi diren guztiak eska daitezke, lehentasunak zehaztuta betiere.

2.6.– Lehiaketa batean baino gehiagotan eskainitako edo kidego bateko baino gehiagoko lanpostuetara aurkeztu nahi izanez gero, lehentasunen arabera zehaztu beharko dituzte lanpostu horiek. Horretarako, iragarritako berariazko lehiaketa guztietako II. faseko behin betiko emaitzak argitaratutakoan, Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpenaren bidez, 5 egun balioduneko epea irekiko da, lehiakide horiek beren lehentasunen arabera erregistra ditzaten lanpostu horiek, bai berariazko lehiaketan bai lehiaketa orokorrean, eta ezin izango da aldaketarik egin lehiaketa bakoitzaren barruan zehaztutako lanpostuen ordenan.

2.7.– Bai lanpostuaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak, bai merezimenduak egiaztatzekoak, eskabidearekin batera aurkeztu behar dira, oinarri orokorretako 8. oinarrian

zehazturik datorren moduan, eta, eskabide elektronikoa egiten bada, eskabideak aurkezteko epe beraren barruan egiaztatu beharko dira merezimenduak edo baldintzak.

Epe barruan aurkezten ez badira, egiaztatu gabetzat joko dira.

3.– Merezimenduen balorazioa (II. fasea).

Fase honetan, lanpostu bakoitzaren ezagutza- eta trebetasun-garrantzitsuenen arabera baloratuko dira merezimenduak, oinarri orokorretako 6. oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Honako lanpostu hauetako bat lortu nahi dutenek lanpostuak berezkoak dituen atazei buruzko proba praktiko bat egin beharko dute.

510130 EBren politiken eta finantzaketa-funtsetako teknikaria
510401 Administrazio orokorreko kudeaketa-arduraduna
510561 Barne-araudiaren arduraduna
510562 Barne-araudiko arlo-arduraduna
511360 Kudeaketa bateratuko teknikaria
511382 Joko eta ikuskizunetako lurralde-arduraduna

Honako lanpostu hauetako bat lortu nahi dutenek lanpostuak berezkoak dituen atazei buruzko proiektu bat egin beharko dute.

510131 EBren politiken eta finantzaketa-funtsen arduraduna
511671 Zerbitzu orokorren arduraduna
512041 Zuzenean arduraduna

4.– Balorazio Batzordea.

Hauek izango dira batzordekideak:

Batzordeburua:

Titularra: M.ª José Arrien Luzarraga
Ordezkoa: Gema González de Txabarri Miranda

Kideak:

Titularra: Josu Erauzkin Barrenetxea
Ordezkoa:Matilde Etxeberria Zuazo

Kideak:

Titularra: Antonio María Iturralde Arriaga
Ordezkoa: Alvaro Iradier Rosa

Kideak:

Titularra: Domingo Acha Quintana
Ordezkoa: Andoni Gamboa Martinez

Idazkaria

Titularra: M.ª Pilar Vega Pérez
Ordezkoa: Luis María Moreno Díez

II. ERANSKINA / ANEXO II
2015eko azaroaren 20ko DEIALDIAREN AGINDUA / ORDEN de CONVOCATORIA del 20 de noviembre de 2015 Orrialde /Página: 1

## ESKEINITAKO LANPOSTU ZERRENDA
## RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO OFERTADOS

Berariazko Osagarria Maila: I-A
Nivel Complemento Específico:

| S/E<br>D/O | Adm.Egituraren Atala<br>Centro Orgánico | Lanp.<br>Puesto | Lanpostuaren Izena<br>Denominación Puesto | ----Atxikipena----<br>Adm.<br>----Adcrispc.-----<br>Adm. | Tal<br>Gr. | Ki.Au.Es.<br>Cu.Op.Es. | D.O<br>C.D | Dot.<br>Dot. | H.E.<br>P.L. | Derr. Egun<br>Fecha Precep. | Ber. Eza.<br>Con. Esp. | Ded. Err.<br>Reg. Ded. | Lan-egoitza<br>Destino | Mer. Ber.<br>Mer. Esp. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 02 | HE.HAR.ADMI.BE.E.HOB<br>D.AT.CIU.INN.Y MEJ.A | 512041 | ZUZENEAN ARDURADUNA<br>RESPONSABLE ZUZENEAN | EAE<br>CAE | A | X01EU | 28 | 1 | 3 | 2000/03 | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| 04 | ZERBITZU ZUZENDARITZ<br>DIR. DE SERVICIOS | 511671 | ZERBITZU OROKORREN ARDURADUNA<br>RESPONSABLE SERVICIOS GENERALES | EAE<br>CAE | A | A01EU | 28 | 1 | 4 | | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| 44 | ZUZEN NAGUSI<br>DIR. GENERAL | 511671 | ZERBITZU OROKORREN ARDURADUNA<br>RESPONSABLE SERVICIOS GENERALES | EAE<br>CAE | A | A01EU | 28 | 3 | 4 | 1990/03 | | 100% | DONOSTIA-SAN SEBASTIAN | BAI<br>SI |

2015eko azaroaren 20ko DEIALDIAREN AGINDUA / ORDEN de CONVOCATORIA del 20 de noviembre de 2015 Orrialde /Página: 2

E S K E I N I T A K O  L A N P O S T U  Z E R R E N D A
R E L A C I O N  D E  P U E S T O S  D E  T R A B A J O  O F E R T A D O S

Berariazko Osagarria Maila: I-B
Nivel Complemento Específico:

| S/E<br>D/O | Adm.Egituraren Atala<br>Centro Orgánico | Lanp.<br>Puesto | Lanpostuaren Izena<br>Denominación Puesto | ----Atxikipena----<br>Adm.<br>----Adcrispc.-----<br>Adm. | Tal<br>Gr. | Ki.Au.Es.<br>Cu.Op.Es. | D.O<br>C.D | Dot.<br>Dot. | H.E.<br>P.L. | Derr. Egun<br>Fecha Precep. | Ber. Eza.<br>Con. Esp. | Ded. Err.<br>Reg. Ded. | Lan-egoitza<br>Destino | Mer. Ber.<br>Mer. Esp. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 04 | PLANG, ENPL BERRIK Z<br>DIR. PLAN. INNOV EMP | 510131 | EBREN POLITIKEN ETA FINANTZAKETA-FUNTSEN ARD.<br>RESPONSABLE POLÍTICAS Y FONDOS DE FINANCIACIÓN UE | EAE<br>CAE | A | A01EU | 28 | 3 | 4 | | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| | | | | EAE<br>CAE | A | A02EU010 | | | | | | | | |
| | | | | EAE<br>CAE | A | A02EU061 | | | | | | | | |
| | | | | EAE<br>CAE | A | A02EU062 | | | | | | | | |
| | | | | EAE<br>CAE | A | A02EU074 | | | | | | | | |
| 06 | BALIA.MAT.AZPIEG.ZUZ<br>D.REC. MATE. E INFRA | 510561 | BARNE-ARAUDIAREN ARDURADUNA<br>RESPONSABLE RÉGIMEN INTERIOR | EAE<br>CAE | A | A01EU | 28 | 2 | 3 | | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |

E S K E I N I T A K O L A N P O S T U Z E R R E N D A
R E L A C I O N D E P U E S T O S D E T R A B A J O O F E R T A D O S

Berariazko Osagarria Maila: II-A
Nivel Complemento Específico:

| S/E<br>D/O | Adm.Egituraren Atala<br>Centro Orgánico | Lanp.<br>Puesto | Lanpostuaren Izena<br>Denominación Puesto | ----Atxikipena----<br>Adm.<br>----Adcrispc.-----<br>Adm. | Tal<br>Gr. | Ki.Au.Es.<br>Cu.Op.Es. | D.O<br>C.D | Dot.<br>Dot. | H.E.<br>P.L. | Derr. Egun<br>Fecha Precep. | Ber. Eza.<br>Con. Esp. | Ded. Err.<br>Reg. Ded. | Lan-egoitza<br>Destino | Mer. Ber.<br>Mer. Esp. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 05 | BALIABIDE OROKORREN<br>DIRECCIÓN DE RECURSO | 510562 | BARNE-ARAUDIKO ARLO-ARDURADUNA<br>RESPONSABLE ÁREA RÉGIMEN INTERIOR | EAE<br>CAE | A | A01EU | 27 | 2 | 4 | | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |

2015eko azaroaren 20ko DEIALDIAREN AGINDUA / ORDEN de CONVOCATORIA del 20 de noviembre de 2015 Orrialde /Página: 4

E S K E I N I T A K O L A N P O S T U Z E R R E N D A

R E L A C I O N D E P U E S T O S D E T R A B A J O O F E R T A D O S

Berariazko Osagarria Maila: II-B
Nivel Complemento Específico:

| S/E<br>D/O | Adm.Egituraren Atala<br>Centro Orgánico | Lanp.<br>Puesto | Lanpostuaren Izena<br>Denominación Puesto | ----Atxikipena----<br>Adm.<br>----Adcrispc.-----<br>Adm. | Tal<br>Gr. | Ki.Au.Es.<br>Cu.Op.Es. | D.O<br>C.D | Dot.<br>Dot. | H.E.<br>P.L. | Derr. Egun<br>Fecha Precep. | Ber. Eza.<br>Con. Esp. | Ded. Err.<br>Reg. Ded. | Lan-egoitza<br>Destino | Mer. Ber.<br>Mer. Esp. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 02 | JUSTIZIA ZUZENDARIT.<br>DIR. JUSTICIA | 510401 | ADMINISTRAZIO OROKORREKO KUDEAKETA-ARDURADUNA<br>RESPONSABLE GESTIÓN ADMINISTRACIÓN GENERAL | EAE<br>CAE | A | A01EU | 27 | 7 | 3 | 2015/03 | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| 04 | ETXEBIZITZA PL. ZUZ.<br>D. PLANIF. Y PROC OP | 510401 | ADMINISTRAZIO OROKORREKO KUDEAKETA-ARDURADUNA<br>RESPONSABLE GESTIÓN ADMINISTRACIÓN GENERAL | EAE<br>CAE | A | A01EU | 27 | 4 | 4 | 2008/01 | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| 06 | KUD.EKON.ZUZEN.<br>DIR. GESTIÓN ECONOM. | 510401 | ADMINISTRAZIO OROKORREKO KUDEAKETA-ARDURADUNA<br>RESPONSABLE GESTIÓN ADMINISTRACIÓN GENERAL | EAE<br>CAE | A | A01EU | 27 | 5 | 3 | 2010/03 | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |

2015eko azaroaren 20ko DEIALDIAREN AGINDUA / ORDEN de CONVOCATORIA del 20 de noviembre de 2015 Orrialde /Página: 5

E S K E I N I T A K O L A N P O S T U Z E R R E N D A
R E L A C I O N D E P U E S T O S D E T R A B A J O O F E R T A D O S

Berariazko Osagarria Maila: II-C
Nivel Complemento Específico:

| S/E<br>D/O | Adm.Egituraren Atala<br>Centro Orgánico | Lanp.<br>Puesto | Lanpostuaren Izena<br>Denominación Puesto | ----Atxikipena----<br>Adm.<br>----Adcrispc.-----<br>Adm. | Tal<br>Gr. | Ki.Au.Es.<br>Cu.Op.Es. | D.O<br>C.D | Dot.<br>Dot. | H.E.<br>P.L. | Derr.<br>Egun<br>Fecha<br>Precep. | Ber.<br>Eza.<br>Con.<br>Esp. | Ded.<br>Err.<br>Reg.<br>Ded. | Lan-egoitza<br>Destino | Mer.<br>Ber.<br>Mer.<br>Esp. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 07 | JOKO ETA IKUSKIZUN Z<br>DIR. JUEGO Y ESPECT. | 511382 | JOKO ETA IKUSKIZUNETAKO LURRALDE-ARDURADUNA<br>RESPONSABLE TERRITORIAL DE JUEGO Y ESPECTÁCULOS | EAE<br>CAE | A | A01EU | 27 | 1 | 3 | 2003/10 | 714 | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| | | | | EAE<br>CAE | A | A02EU010 | | | | | | | | |

ESKEINITAKO LANPOSTU ZERRENDA
RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO OFERTADOS

Berariazko Osagarria Maila: III-A
Nivel Complemento Específico:

| S/E<br>D/O | Adm.Egituraren Atala<br>Centro Orgánico | Lanp.<br>Puesto | Lanpostuaren Izena<br>Denominación Puesto | ----Atxikipena----<br>Adm. Tal Ki.Au.Es.<br>----Adcrispc.-----<br>Adm. Gr. Cu.Op.Es. | D.O<br>C.D | Dot.<br>Dot. | H.E.<br>P.L. | Derr. Egun<br>Fecha Precep. | Ber. Eza.<br>Con. Esp. | Ded. Err.<br>Reg. Ded. | Lan-egoitza<br>Destino | Mer. Ber.<br>Mer. Esp. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 03 | ARABAKO LUR. ORDEZ.<br>DELEG. TER. ALAVA | 511360 | KUDEAKETA BATERATUKO TEKNIKARIA<br>TÉCNICO/A GESTIÓN UNIFICADA | EAE A A01EU<br>CAE | 25 | 1 | 3 | 1994/10 | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| | | | | EAE B A03EU<br>CAE | | | | | | | | |
| 03 | GIPUZKOAKO LU. ORDEZ<br>DELEG. TER. GIPUZKOA | 511360 | KUDEAKETA BATERATUKO TEKNIKARIA<br>TÉCNICO/A GESTIÓN UNIFICADA | EAE A A01EU<br>CAE | 25 | 2 | 3 | 2015/03 | | 100% | DONOSTIA-SAN SEBASTIAN | BAI<br>SI |
| | | | | EAE B A03EU<br>CAE | | | | | | | | |
| 05 | EKONOMIA ETA PLANGIN<br>DIRECCION DE ECONOMÍ | 510130 | EBREN POL. ETA FINANTZAKETA-FUNTSETAKO TEK.<br>TÉCNICO/A POLÍTICAS Y FONDOS DE FINANCIACIÓN UE | EAE A A01EU<br>CAE | 25 | 6 | 3 | 2014/03 | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | BAI<br>SI |
| | | | | EAE A A02EU010<br>CAE | | | | | | | | |
| | | | | EAE A A02EU061<br>CAE | | | | | | | | |
| | | | | EAE A A02EU062<br>CAE | | | | | | | | |
| | | | | EAE A A02EU074<br>CAE | | | | | | | | |

SAILAK ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK DAGOZKIEN GAKOEN AZALPENA
DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A DEPARTAMENTOS Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS

| Saila/Erak.<br>Dpto. /Org. | Sailaren/Organismoaren Azalpena<br>Denominación del Departamento/Organismo |
|---|---|
| 02 | HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA<br>ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA |
| 03 | EKONOMIAREN GARAPENA ETA LEHIAKORTASUNA<br>DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD |
| 04 | ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK<br>EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES |
| 05 | OGASUNA ETA FINANTZAK<br>HACIENDA Y FINANZAS |
| 06 | HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA<br>EDUCACION, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA |
| 07 | SEGURTASUNA<br>SEGURIDAD |
| 44 | HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAK.<br>H.A.B.E |

KIDEGOEI DAGOZKIEN GAKOEN AZALPENA
DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A CUERPOS

| Kidegoa Cuerpo | Kidegoaren Izena Denominación del Cuerpo |
|---|---|
| A01EU | ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOA<br>CUERPO SUPERIOR DE ADMINISTRACIÓN |
| A02EU010 | T.G.-M.K.AUKERA:ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA<br>S.F.OPCIÓN:LIC.DERECHO |
| A02EU061 | T.G.-M.K.AUKERA:ENPRESEN ADMIN.-ZUZENDARITZEN LIZ.<br>S.F.OPCIÓN:LIC.ADMON. Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS |
| A02EU062 | T.G.-M.K.AUKERA:AKTUARIATZA-FINANTZA ZIENTZIA LIZ.<br>S.F.OPCIÓN:LIC.CIENCIAS ACTUARIALES Y FINANCIERAS |
| A02EU074 | T.G.-M.K.AUKERA:EKONOMIAN LIZENTZIATUA<br>S.F.OPCIÓN:LIC.ECONOMÍA |
| A03EU | ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO KIDEGOA<br>CUERPO DE GESTIÓN ADMINISTRATIVA |
| X01EU | A TALDEKO KIDEGO-AKAUKERA-ESKALAK (EAE)<br>CUERPOS-OPCIONES-ESCALAS GRUPO A (CAE) |

EZAGUPEN BEREZITUEI DAGOZKIEN GAKOEN AZALPENA
DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A CONOCIMIENTOS ESPECÍFICOS

| Ezaguera Conocimiento | Ezagueraren Azalpena Denominación del Conocimiento |
|---|---|
| 714 | A02EU010 DELAKOARI EGUN ATXIKITAKO LANPOSTUETAN AZKEN 15 URTEETAN 4 URTEKO ESPERIENTZIA DUTELA ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUAK DIREN A01EU KIDEGOTIK DATOZEN LANGILEEK BAKARRIK EGIAZTA DITZAKETENAK.<br><br>EXPERIENCIA DE 4 AÑOS EN LOS ÚLTIMOS 15 AÑOS EN PUESTOS ACTUALMENTE ADSCRITOS AL A02EU010 ÚNICAMENTE A ACREDITAR POR EL PERSONAL QUE PROVIENE DEL CUERPO A01EU, CON LICENCIATURA EN DERECHO. |

## III. ERANSKINA
## BESTE HERRI ADMINISTRAZIO BATZUETAN LORTUTAKO MEREZIMENDUEN ZIURTAGIRIA

ADMINISTRAZIOA
SAILA/ERAKUNDEA:

JN./AND.:
KARGUA:

| 1. Datu pertsonalak | | | |
|---|---|---|---|
| *Izena* | *Lehenengo abizena* | *Bigarren abizena* | *NAN* |
| *Kidegoa edo eskala* | | | *Taldea* |
| *Jatorrizko administrazioa* | | | |
| *Egoera administratiboa* | *Egoeraren hasiera-eguna* | | |
| *Noiz hartu zenuen jabetzan lekualdatze-lehiaketan lortutako azken lanpostua?:*<br><br>*Aurreko lanpostua amortizatu egin bada, edo lanetik mugiarazi bazaituzte, adierazi:* | | | |

| 2. Norberaren maila | |
|---|---|
| *Gradua* | *Eguna* |

| 3. Antzinatasuna | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *a) Antzinatasuna:* | *Titulazio-taldea* | *Kidegoa* | *Lanpostua* | *Hasiera-eguna:* | *Amaiera-eguna:* |

| 4. Beste herri administrazio batzuetan azkeneko 5 urtetan pilatutako lan-esperientzia | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *Lanpostuaren izena* | *Lanpostuaren zereginak* | *Egoera* | *Amortizazioagatik uztea* | *LMko osagarria* | *Noiztik* | *Noiz arte* |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

## IV. ERANSKINA

## JAKINTZA-ARLOA
## ADMINISTRAZIO KUDEAKETA ETA KANPOKO AKZIOA

***Eskabide-zenbakia(1):*** | | |

**1. Datu pertsonalak**

| Lehenengo abizena | Bigarren abizena | Izena | NAN | Sexua |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

**2. Datu pertsonalak. Beste administrazio batzuetako langileek betetzeko.**

| Helbidea (kalearen zenbakia eta solairua) | Posta-kodea |
|---|---|
| **Telefonoa** | **Posta elektronikoa** |
| **Lurralde historikoa** | **Udalerria** |

**3. Funtzionarioen elkarbizitza-arrazoiak direla eta, lanpostua udalerri berean esleitzekotan egiten du eskabidea.**

| NAN | Lehenengo abizena | Bigarren abizena | Izena |
|---|---|---|---|
| | | | |

| Lurralde historikoak | Udalerriak |
|---|---|
| | |

**4. Administrazio Orokorreko langileen datu administratiboak**

**EAEko kidegoa**

☐ A1 ☐ A 2 ☐ B1 ☐ B2 ☐ C1 ☐ C2 ☐ D1 ☐ E1

**Aukera edo eskala, goi-mailako teknikarien kidegokoa izanez gero**

**5. Administrazio-datuak (EAEko irakasle funtzionarioak, Osakidetzako funtzionarioak eta estatutupekoak eta beste administrazio publiko batzuetakoak)**

**Langile mota**

| Irakasle funtzionarioak ☐ | Osakidetzako funtzionarioak eta estatutupekoak ☐ | Beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak ☐ |
|---|---|---|

**Kidegoa**

**6. Desgaitasunen bat duten funtzionarioak**

| Desgaitasun mota | Ehunekoa |
|---|---|
| | |

**Lanpostua egokitu egin behar dela uste baduzu, adierazi zergatik eta zer egokitzapen behar duen**

(1)Langile bakoitzak eskabide-orri bat aurkeztu beharko du kidego bakoitzeko. Eskabide horiek hurrenkeraren araberako zenbakia eduki beharko dute (1, 2, 3, eta abar). Eskabide-zenbaki horrek bat etorri behar du lanpostuak eskatzeko orrietan adierazitakoarekin.

| 7. Euskara |
| --- |
| Tituluaren izena |

| 8. Tituluak |
| --- |
| Tituluaren izena |

| 9. Hobekuntza-ikastaroak |
| --- |
| Ikastaroaren izena |

| 10. Irakasle-lana |
| --- |
| Ikastaroaren izena |

| 11. Ikerketa-lanak |
| --- |
| Komunikazioen, proiektuen eta argitalpenen izena |

| 12. Hizkuntzak |
| --- |
| Titulu edo ziurtagiriaren izena |

| 13. Honekin batera aurkezten diren agiriak | |
|---|---|
| Egindako lanaren ziurtagiria | BAI ☐ |
| Ikasketa-agirien kopiak edo ziurtagiriak | BAI ☐ |
| Egindako ikastaroen kopiak | BAI ☐ |
| Administrazioan daukazun antzinatasunaren ziurtagiriak | BAI ☐ |
| Norberaren mailaren ziurtagiria | BAI ☐ |
| Egiaztatutako euskara-ezagutzaren ziurtagiria | BAI ☐ |
| Hizkuntzen ziurtagiria | BAI ☐ |
| Desgaitasunaren ziurtagiria | BAI ☐ |
| Familia-elkarbizitzaren ziurtagiria | BAI ☐ |
| Berariazko baldintzen ziurtagiria | BAI ☐ |
| Emandako ikastaroen ziurtagiria –irakasle-lana– | BAI ☐ |
| Komunikazioen eta ponentzien ziurtagiria | BAI ☐ |
| Ikerketa-egitasmoetan parte hartu izanaren ziurtagiria | BAI ☐ |
| Argitalpenen originalak edo egiaztagiriak | BAI ☐ |

| 14. Eskatutako lanpostuak | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ordena** | **Lanpostuaren kodea** | **Dotazioa** | **Ordena** | **Lanpostuaren kodea** | **Dotazioa** | **Ordena** | **Lanpostuaren kodea** | **Dotazioa** |
| 1 | | | 32 | | | 63 | | |
| 2 | | | 33 | | | 64 | | |
| 3 | | | 34 | | | 65 | | |
| 4 | | | 35 | | | 66 | | |
| 5 | | | 36 | | | 67 | | |
| 6 | | | 37 | | | 68 | | |
| 7 | | | 38 | | | 69 | | |
| 8 | | | 39 | | | 70 | | |
| 9 | | | 40 | | | 71 | | |
| 10 | | | 41 | | | 72 | | |
| 11 | | | 42 | | | 73 | | |
| 12 | | | 43 | | | 74 | | |
| 13 | | | 44 | | | 75 | | |
| 14 | | | 45 | | | 76 | | |
| 15 | | | 46 | | | 77 | | |
| 16 | | | 47 | | | 78 | | |
| 17 | | | 48 | | | 79 | | |
| 18 | | | 49 | | | 80 | | |
| 19 | | | 50 | | | 81 | | |
| 20 | | | 51 | | | 82 | | |
| 21 | | | 52 | | | 83 | | |
| 22 | | | 53 | | | 84 | | |
| 23 | | | 54 | | | 85 | | |
| 24 | | | 55 | | | 86 | | |
| 25 | | | 56 | | | 87 | | |
| 26 | | | 57 | | | 88 | | |
| 27 | | | 58 | | | 89 | | |
| 28 | | | 59 | | | 90 | | |
| 29 | | | 60 | | | 91 | | |
| 30 | | | 61 | | | 92 | | |
| 31 | | | 62 | | | 93 | | |

3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten izangaiek, baldin eta 4. hizkuntza-eskakizuna indarrean duten lanpostuak lortu nahi badituzte, aurreko koadroan adierazi beharko dute hori.

Lehiaketa kudeatzerakoan, datu pertsonalak Herri Administrazio eta Justizia Saileko langileen fitxategian tratatuko dira, saila bera da fitxategiaren ardura duen administrazio-organoa, eta aukera ematen du datuok atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo horien aurka egiteko, Funtzio Publikoko Zuzendaritzara jota.

Alegatutako merezimenduen ziurtagiriak, egiaztagiriak, fotokopiak eta abar aurkeztu dira eskabide honekin batera. Behean sinatzen duenak lehiaketan parte hartzea eskatzen du, eta eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla adierazten.

_____________(e)n, 2015eko ________(a)ren ___(e)an

Sinadura